

PROIEKTUAREN AURKEZPENA:

Klima aldaketa dala eta, gero eta hondamendi natural gehiago gertatzen dira eta horreek itxitako ondorioei aurre egiteko martxan jartzen diren ekintzetan antolakuntza eta koordinazio falta dago. Hori dala eta, gure proiektua aplikazio baten oinarritu dogu. Aplikazio honetan Europako GKE desbardinek hondamendia gertatutako herri edo hiriari laguntza emoteko behar dabezan bolondresak eta bolondres lanaren ezaugarriak zehaztu ahalko dabez. Bezeroek eskuragarri dagozan bolondres lan guztiak aplikazio honen bidez ikusi ahalko dabez, eta euren lehentasunen arabera bat aukeratuko dabe. Amaitzeko, guk laguntzeko dagozan bolondres guztiak antolatu eta koordinatuko doguz, GKE-ei antolakuntza eta koordinazio zerbitzua eskainiz euren lana egin ahal izateko.